

MUSKIZEN, 2026. URTEAN KULTURA EDOTA GAZTE JARDUERA ETA EGITARAUAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA, IRABAZI ASMORIK GABEKO PERTSONA ETA ELKARTEENTZAT

1. X E D E A

Deialdi honen xedea da urtean zehar egiten diren kultura edo gazte jarduera jakinak edo urte osoko egitarauak garatzeak eta egiteak eragin ditzaketen gastuak arintzera zuzenduta dauden diru-laguntzak eskuratzeko eta emateko baldintzak arautzea. Diru-laguntza hauen xede dira aipatutako elkarte horiek garatzen eta egiten dituzten ohiko jarduerak eta aparteko ekintzak.

2. AURREKONTUA

Kultura Sailak 45.000 €-ko aurrekontua izango du; kopuru horretatik, 30.000 € diruz laguntzen diren elkarten urteko egitarauetara bideratuko dira; eta 15.000 €, aparteko proiektu eta jarduerari. Halakotzat hartuko dira, beren salbuespenagatik edo aurrekontuagatik, eta epe laburrean gauzatzeagatik, eskatzailearen ohiko jarduerarekin bat ez datozenak eta urteko aurrekontua nabarmen handitzen dutenak. Halaber, urteko programarik aurkeztu ez duten erakundeen ezohiko jardueretarako dirulaguntzen eskaerak onartuko dira, jarduera eta aurrekontu gehiena jarduera edo programa bakar batean biltzen dutelako. Kultura Sailak banan-banan baloratuko du dirulaguntza puntualaren eskaera bakoitzak halakotzat hartzeko baldintzak betetzen dituen.

Urteko egitaraurako diru-laguntzak banatu ondoren diruren bat geratuko balitz erabilgarri, automatikoki gehituko zaio proiektu eta jarduera puntualak diruz laguntzeko ezarritako zenbatekoari, urte osoan eman baitaitezke.

3. O N U R A D U N A K

Diru-laguntza hauek jaso ditzakete Muskizen kokatutako irabazi asmorik gabeko pertsona eta elkarteek, baldin eta indarrean dagoen legeriaren arabera osatuta baldin badaude, dagokien erregistroetan izena emanda badute, eta muskiztarren intereskoak diren kultura jarduera edo egitarauak egiten badituzte.

Salbuespen gisara, dagokion Sailak proposatuta hala erabakiz gero, Muskizetik kanpo kokatutako elkarte eta pertsonak ere diru-laguntzak jaso ahalko dituzte, baldin eta bere jardueraren zati nabarmen bat udalerrian egiten bada edo udalerrirako bereziki interesgarritzat jotzen bada.

Berariaz baztertzen dira Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin edo Muskizko Udalarekin zorrak dituzten erakundeen eta/edo pertsonen eskaerak.

4. D I R U Z L A G U N D U D A I T E Z K E E N A K E T A B A Z T E R K E T A K

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak: eskatzaileak antolatutako jarduerak eragindako gastuak: materialak, hornikuntza eta kontratatutako zerbitzuak, aseguruak, publizitatea, bulegoa, botikina, lokal eta hornidura mantentzeak...

Bazterketak: Espresuki diru-laguntza deialdi honetatik kanpo daude honakoak:

- a) Bere izaera edo xedeagatik deialdi honi esleitutako jarduera eremuekin harreman zuzenik ez duten eskabideak.
- b) Diru-laguntza izenduna duten egitarauak eta Udal honetako beste laguntza batzuetan lotura egokiagoa edo zuzenagoa dutenak.
- c) Behar bezala adierazita ez dauden jan-edanak, PFEZ atxikipenik, BEZik edo indarrean dagoen kontraturik (hala dagokionean) aurkezten ez duten hizlari, irakasle, laguntzaile eta gisa horretakoei egindako ordainketak.
- d) Janari gastuak. Salbuespena: janarietako gastuak BAI onartuko dira jardueretako janari-guneen kasuan; menuen kasuan, jarduerak Muskizetik kanpora ateratzea edo Muskizetik kanpo egotea eskatzen duenean; eta sardina-janak, txokolate-janak edo gisa horretako herri ekitaldien kasuan.
- e) Datu hauek argi adierazten ez dituzten fakturak: hornitzailea eta bere IFZ edo NAN, bezeroa (eskatzailea) eta bere IFZ edo NAN, kontzeptua, prezioa eta BEZa, hala behar denean.
- f) Emakumeen aurkako indarkeria saihesteko daukan konpromisoaren barruan, Muskizko Udalak baztertu egingo ditu *“sexuaren arabera pertsonak gehiagotzat edo gutxiagotzat edo objektu sexual huts modura aurkezten dituzten irudi eta eduki mediatikoak, bai eta indarkeria justifikatu, hutsaldu edo sustatzen dutenak, bereziki, emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan.”*

5. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Laguntza hauek eskuratu nahi dituzten elkarteek eskabidea aurkeztu beharko dute, deialdi honi atxikitako ereduari jarraiki, **“Aurkeztu beharreko agiriak”** atalean zehaztutako datu eta dokumentuak gaineratuta.

Baldin eta aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarri hauek ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eskatzaileak hamar egun izango ditu dokumentazioa osatzeko edo okerrak zuzentzeko. Epe horretan horrelakorik egiten ez badu, eskatzaileak laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Nolanahi ere, egingo den jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahalko die eskatzaileei Udalak, aurkeztutako jarduera baloratze aldera.

6. EPEAK

Urteko egitarauak: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik, 15 egun natural.

Aparteko jarduerak: Urriaren 31 arte.

7. BALORATZEKO ETA EMATEKO IRIZPIDEAK

Urteko egitarauak: Atal honek urteko egitarauetarako dagoen aurrekontua norgehiagoka araubidez banatuko du, hau da, onartutako eskabideen artean banatuko da, bakoitzak lortutako puntuekiko proportzionalki, muga hauekin:

- a) Laguntzaren zenbatekoa ezin da 6.000 € baino handiagokoa izan.
- b) Laguntzaren zenbatekoak ezin du gainditu aurkeztutako gastuen aurrekontuaren % 75a.

Bi kasuetan salbuespenak egon daitezke. Horrelakorik balego, banan-banan justifikatu beharko ditu deialdia egiten duen Sailak.

Pertsona edo elkarte eskatzaileek puntuazio bat gainditu beharko dute, gehienez, 100 punturaino, irizpide hauei jarraiki:

1. Aurkeztutako jarduera edo egitarauaren aurrekontu osoa.....**80** punturaino.
(Hasierako 2.000 € = 20 puntu, ondoren 200 €-ko = puntu 1)

Beren jarduerengatik aldizka kobratzen duten erakundeek (hau da, akademia baten antzeko funtzionamendua duten ikastaroak ematen dituztenek, nahiz eta haien figura juridikoa elkarteara izan) 40 puntuko muga izango dute atal honetan.

- Interes bereziko ekitaldi edo programak: (Muskizko Kultura Sailak bereziki sustatu nahi dituen jarduera, talde edo proiektuak bultzatzeagatik, Kultura Sailak elkarteei berariaz eskainitako jardueretan parte hartzea, edo espresuki urte jakin honetan izango diren ekitaldiak: urteurrenak, biltzarrak edo gisa horretakoak**20** punturaino.

Eskabideen balorazioa egin ondoren, eta soilik kreditu erabilgarria banatu gabe geratzen bada, erabilgarri dagoen kreditua proportzionalki hainbanatuko da, eskaera bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera. Egitarauetarako diru-laguntzak eman ondoren diruren bat geratuko balitz erabilgarri, zuzenenean gehituko zaio egitasmo eta jarduera puntualak diruz laguntzeko ezarritako zenbatekoari, urte osoan eman baitaitezke.

Jarduera jakinak:

Beren ezaugarri eta aurrekontuagatik elkarte eskatzailearen urteko ohiko programaziotzat hartzen ez diren ezohiko jarduerak izango dira. Atal honetako dirulaguntzaren zenbatekoa banan-banan baloratuko da, Kultura eta Kirol Sailaren arabera jarduera bakoitzak duen interesa kontuan hartuta.

Kasu honetan ez dute eraginik izango arestian aipatutako ebaluazio irizpideek ezta mugek ere; izan ere, eskaerak banan-banan baloratuko dira.

8. ERABAKIAK JAKINARAZTEA

Erabakia hartutakoan, dagokien Sailak eskatzaile guztiei idatziz jakinaraziko die eta egokitutako diru kopuruak ordainduko dizkie.

9. DIRU-LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ITZULKETAK

Diruz laguntzen den egitaraua egiten den hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehenago justifikatu behar dira.

Muskizko Udalak behar bezala justifikatu ez diren diru-kopuruak itzultzeko eskatuko die diru-laguntza jasotzen duten pertsona eta elkarteei. Justifikazioa nahikoa edo zuzena ez balitz, Udalari diru-laguntza osorik edo zati batean itzuli beharko zaio. Udalarekin zor hau edo beste edozein zor dutenek ezingo dute diru-laguntzarik eskatu.

Diru-laguntza bat justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa hauxe da:

- 1.- Aurkeztutako fakturen eta egiaztagirien zerrenda hurrenez hurren zenbakitua.
- 2.- Aipatutako gastuen fakturak.
- 3.- Diruz lagundutako jarduera edo programen deskripzio- eta balioespen-txostena.
- 4.- Kartel, esku-orri eta editatu den bestelako publizitate guztia. Publizitatean Udalak diruz laguntzen duela agertu behar da.

GARRANTZITSUA: faktura edo dokumentu egiaztagirien zerrenda posta elektronikoz ere bidali beharko da kultura@muskiz.com helbidera, Excel edo antzeko artxibo batean.